

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LAN ETA ENPLEGU SAILA

### 1240

*EBAZPENA, 2022ko otsailaren 10ekoa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpean dauden eskola-garraioko laguntzaileen eta jolastokiko zaintzaileen enpresa emakidadunen hitzarmen kolektiboaren Batzorde Paritarioak hitzarmen kolektibo sektorialaren 9. artikuluan egindako akats materiala zuzentzeari lotuta egin duen akordioa erregistratu, argitaratu eta gordailutzea (hitzarmenaren kodea: 86002445012005).*

#### AURREKARIAK

2022ko urtarrilaren 20an, aipatu hitzarmen kolektiboaren Batzorde Paritarioak egindako akordioaren dokumentazioa aurkeztu da REGCONen. Enpresaren eta sindikatuen ordezkariak sinatuta egon da dokumentazioa.

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) 2. artikuluan Lan eta Enplegu Saila sortzen du, eta 6. artikuluan ezartzen du sail horrek egikaritutako duela lan-arloko legeek lan-harremanei buruz ezartzen dutena. Bestalde, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak (gero uztailaren 6ko 167/2021 Dekretuak aldatzen duena) 10.1.i) artikuluan ezartzen du Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistro telematikoa zuzendu eta kudeatuko duela, erregistroa arautzen duen dekretuan eta indarrean dagoen gainerako araudian xedatutakoari jarraikiz.

Bigarrena.– Akordioa Eskola Garraioko Laguntzaile eta Patio Zaintzaile Zerbitzuaren Enpresa Emakidadunen Elkartek eta ELA eta LAB sindikatuak sinatu dute, Langileen Estatutuari buruzko Legeak 85., 87., 88., 89. eta 90. artikuluetan ezarritako betekizunekin bat etorritik.

Hori dela-eta, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Akordioa Euskadiko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroan inskribatu eta gordailutzeko agintzea, eta alderdiei jakinaraztea.

Bigarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko otsailaren 10a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,  
ANGEL LAPUENTE MONTORO.

**AKORDIOA, EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN MENPEKO  
ESKOLA-GARRAIOKO LAGUNTZAILEEN ETA JOLASTOKIKO ZAINTZAILEEN  
ENPRESA EMAKIDADUNEN HITZARMEN KOLEKTIBOAREN BATZORDE  
PARITARIOAK EGIN DUENA, HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALEKO 9.  
ARTIKULUAN EGINDAKO AKATS MATERIALA ZUZENTZEKO**

Bilbon bildu dira, Lan Harremanen Kontseiluaren egoitza birtualean, LAB eta ELA sindikatuak eta Eskola Garraioko Laguntzaile eta Patio Zaintzaile Zerbitzuaren Enpresa Emakidadunen Elkar-  
tea (EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpekoak), hitzarmenaren Batzorde  
Paritarioa osatzen dutelako. Aho batez hartu dute honako erabaki hau:

Lehenengoa.– Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpean dauden eskola-garraioko lagun-  
tzaileen eta jolastokiko zaintzaileen enpresa emakidadunen hitzarmen kolektiboko 9. artikuluan  
dagoen taula zuzentzea. Bertan egin den akats materiala zuzendu behar denez, ondorio guztieta-  
rako, honako taula honekin ordezkatu da.

Laguntza-denbora zerbitzuka (autobuseko laguntzaileak soilik)	Kontratu-orduak zerbitzuko (autobuseko laguntzaileak soilik)
Ordu 1/4 arte	Ordu 1/2
Ordu 1/2 arte	Ordu 3/4
Ordu 3/4 arte	Ordu 1
Ordu 1 arte	Ordu 1 eta 1/4
Ordu 1 eta 1/4 arte	Ordu 1 eta 1/2
Ordu 1 eta 1/2 arte	Ordu 1 eta 3/4
Ordu 1 eta 1/2 baino gehiago	Benetako laguntza-denbora

Bigarrena.– Lan Harremanen Kontseiluko presidenteari, Tomás Arrieta Heras jaunari, aginduko  
zaio Lan Agintaritzari aurkezteko hitzarmen kolektibo sektorialaren 9. artikulua zuzentzea onartzen  
duen akordio hau, erregistratu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin.